



DEIALDIA, OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO HERRITARREN PARTAIDETZAKO TEKNIKARIAREN 1 PLAZA

IZENDAPENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 16an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

Behin amaiturik Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko herritarren partaidetzako teknikariaren 1 plaza oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 16an hartutako erabaki bidez onetsi zen, eta 2025eko 2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 3koan, argitaratu zen–, eta bat etorrita hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, behin eskatutako agiriak aurkeztuta, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Iruñeko Udaleko funtzionario izendatzea herritarren partaidetzako teknikariaren lanposturako

IZENDATUA	ESLEITUTAKO PLAZA	ARAU BIDE JURIDIKOA
FLORENCIO LUQUI IRIBARREN	1-209500-4	FUNTZIONARIOA

2. Izendatutakoak 2026ko apirilaren 20an hartu beharko du plazaren jabetza.
3. Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratu dadila.

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epategiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.